

# BADAKIZU... ?

- \* Emakume idazleek gizonen ezizena erabiltzea ohikoa izan da, eta ez antzinako aroan bakarrik. J.K. Rowling idazle famatuak bere izenaren hasierako letrak erabili zituen irakurleei emakumea zela ezagutzera ez emateko asmoz. Aurrerago berriz erabiliko zuen gizonezko ezizena polizia eleberririk argitaratzeko orduan.
- \* Emakume batzuek bere idazlanak senarraren izenean argitaratu zituzten, esate baterako Collette idazle frantziarraren lanak edo Maria de la O Lejárraren lanak. Senar horien kasuan, emaztearen lanaren errekonozimendua onartu zuten inongo lotsarik gabe.
- \* Mariasun Landa, euskal haur eta gazte literaturako idazle goraipatuenetariko bat da nazioarteko mailan. Beren liburuak 15 hizkuntzara itzuliak izan dira, besteak beste korearrera, grekora edo esloveniara hizkuntzatan irakur ditzakegu bere lanak.
- \* Felisa Martin izan zen emakume bakarra Espainako Meteorologia Zerbitzu Nazionalan urte askotan, ez baitzuen beste emakumerik onartu hirurogeiko hamarkadaren bukaeraraino!
- \* 16 emakume hauek jaso dute zientzia eremuko Nobel Saria historian zehar: Marie Curie, Irene Curie, Gerty Theresa Cori, María Goeppert, Dorothy Crowfoot Hodgkin, Rosalyn Yalow, Barbara McClintock, Rita Levi-Montalcini, Gertrude B. Elion, Christiane Nüsslein-Volhard, Linda B. Buck, Françoise Barré-Sinoussi, Elizabeth Blackburn y Carol Greider, Ada E. Yonath, May-Britt Moser eta Youyou Tu.
- \* Merit Ptah Aintzinako Egiptoko sendagilea izan zen. Bere irudia Saqqara Piramidean agertzen da eta historiako lehenengo emakume sendagiletzat hartzen da.
- \* Espainan, emakumeen botoa emateko eskubidea, 1931ko Konstituzioan onartu zen, 1933ko ospatutako hauteskunde orokorretan emakumeek jardun ahal izan zuten lehen aldiaz bere boto-eskubidea.
- \* Bigarren Mundu Gerran, SESBak eratu zuen emakumez bakarrik osatutako hegazkin eskadroia eratu zuen hainbat bonbardaketa burutzeko.
- \* Eskubide Zibilen mugimendua oinarritzat izan zen AEBn lege arrazistak baztertzeko. Rosa Parks izeneko emakume batek piztu zuen mugimendu hori, autobuseko eserlekua gizon zuri bati ukatu zionean.
- \* Washington hirian kokatzen da National Museum of Women in the Arts, munduko museo bakarrak lan egiten duena emakume artisten ekarpena ezagutzeko ematera.
- \* Vienako Orkestra Filarmonikoa 1842. urtean sortu zen baina 1997. urte arte ez ziren onartu emakume kideak.
- \* Lavinia Fontana margolari italiarra aintzindaria izan zen. XVI. mendean arrakasta handia lortu zuen erretratuak egiten, are gehiago, biluzik marraztu zituen emakume eta gizon. Gainera, bere senarra seme-alabaren zaintza (11 haur) arduratu zuen.
- \* Hamalau zortzimilakoak munduko 8.000 metrotik gorago mendiak dira eta kiroleentzat izugarri helburu da den-denak igotzea. Euskalduna dugu igo dituen lehen emakumea, hain zuzen ere Edurne Pasaban, alpinista tolosarra izan da.
- \* Coco Chanel enpresari arrakastatsua izateaz gain, moda eremuan emakume aintzaindari ere izan zen. Izan ere, bazterrarazi zuen emakumezko arropa barrokoa eta deserosoa eta janzkera erraza eta arina modan jarri zuen.
- \* 1857ko martxoaren 8an ehunaka emakume langile kalera atera ziren soldataren igoera aldarrikatzeko. Egun hartan 120 emakume hil zituen poliziek, gertaera honetatik abiatzen da gaur egungo ospatzen dugun martxoaren zortziko emakumeen eguna.
- \* Eusko Ikaskuntzako lehen kongresuan (1918) Euskal herrian hezkuntzaren egoera aztertua izan zen. Adituek proposamen hauek egin zituzten, Euskal Herriko historia eta geografia irakastea, zonaldeetako egoera linguistikoa kontuan hartuz euskara nahitaezkoa izatea irakaskuntzan eta Euskal herriko Unibertsitatea eraikitzea, besteak beste. Biltzar hartan emakume bakar batek soilik aurkeztu zuen lan bat.
- \* 1882. urtetik 1910. urtera soilik 36 emakume lortu zuten unibertsitateko titulu bat Espainian, gaur egun, berriz, unibertsitateko ikasle gehienak emakumeak dira.
- \* Malala Yousafzai neska pakistandarrak, eraso larria jasan zuen 15 urterekin nesken hezkuntzaren eskubideak babesteagatik. 17 urte zituela Bakearen Nobel Saria jaso zuen emakumeen eskubideen eta hezkuntzaren alde lan ikaragarria egiteagatik.